



EGUNEKO DIANAK




Reala

Atotxa zaharrari azken agurra emateko hiru ordu pasako ikuskizuna prestatu du gaurko Realak: Realeko eta Athleticeko veteranoek partidua jokatu dute eta Realaren eta euskal selekzioaren artekoa ere izango da. / 19



Chicago Bulls

Phoenix 4-2 gainditu eta Chicago Bullsek NBAko hirugarren eraztuna eskuratu du jarraian. Finaleko laugarren garaipena atzo lortu zuen Phoenixen kantxan 98-99ko markagailuarekin. / 21



Agirre-Murumendiaraz

Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiaraz bergararrak nagusitu ziren joan zen igandean Seguran jokatu zen Euskadiko XVII. Dantza Askatu Txapelketan. / 25

Endika Ollo: «Lehiaketa bat irabazte hutsagatik ez zara marrazkilaria ona»

GOIZALDE LANDABASO / BILBO

Endika Ollok egindako kartel batek irabazi du beste urte batez Bilbo-ko jaien kartela egiteko lehiaketa. Durangar honek aitortu digunez, datorren urtean hirugarren lehiaketa irabazten ahaleginduko da, «behintzat aurkeztu egingo naiz». Endikaren esanetan, joan zen urteko garaipenak bultzatu zuen bigarren honetan aurkeztera. «Garrantzitsua da ideia da, konposaketa baino gehiago. Ezinbestekoa da zuk adierazi nahi duzuna agertzea. Nire buruan nuen ideia kontuan izanik jo nuen lehiaketara». Dena den, ideiak asko izan daitezkeela, baina gakoa onena aurkitzean dagoela erantsi du.

Joan zen urtean garaile izan zen kartela eta aurtengoa zeharo ezberdinak omen dira. «Aurtengoak lotura handiagoa du publizitatearekin. Joan zen urtekoa kartelagoa da». Lehiaketara goi mailako marrazkilaria asko aurkeztu da. «Hasieran kartel asko atzera botatzen dituzte. Gero kalitatezkoak gelditzen dira». Epaimahaiak ere zertxobait esan digu: «Guztira zazpi izaten direla uste dut. Horien artean adituak eta ezjakinak daude. Baina nik uste dut hala izatea beharrekia dela; azken batean, gerora kartela ikusten dutenak adituak eta ezjakinak izango dira».

Bilboko jaien kartela birritan irabazi badu ere, bere herrian ez da gutxiago izan. «Durangon sei bider irabazi dut», dio. Endika Olloren ibilbidean garaipen nahiko daude, «batean Eibarko Ihauterietako kartela, Arrigorriagan ere zerbait irabazi dut, drogaren aurkako kanpaina baten kartela...». Bere ustez, marraz-



XOUSE SIMAL

SOSLAIA

San Ferminetakoa

Leioan Arte Ederrak ikasi zituen. «Berriztatzailea naiz. Ikasten hasi nintzen garaian diseinua nahiko txarto zegoelako». Arte Ederretako ikasketak ez omen dira izan berak espero zuena. Marrazkigintzan zailena ideia sortzea da eta ideia horrek behar duen teknika aukeratzea, bere hitzetan. Egindako marrazkien artean bat bestea baino bereziagoa den galdetzean, berehala erantzun du: «Durangon zegoen abade bati egindako irudia». Irabazi nahi lukeen saria, «San Ferminetako kartela... birritan».

kilari on batek, gauza guztien gaine-tik, originala izan behar du.



Gure solaskidea bere marrazkietan originaltasuna agertzen saiatzen da, «baina oso zaila da, honetan ere gehiena asmatuta dago eta». Aurtengo kartel irabazlea egiteko lau egun eman dituela argitu du. Irabazteko itxaropenik zuen ala ez galdetzean, baietz erantzun digu: «Kartel bat aurkeztu dudanean irabazteko da». Joan den urtean lehenengoz aurkeztu zuen kartela Iruñeko Sanferminetara eta lehenengo hogeien artean gelditu zen. Aurtun beste ahalegin bat egingo du, «ia irabazten dudana!».

Txikitan egunak marrazten ematen zituen horietakoa da Endika. «Azterketetan ere egiten nituen marrazkiak!». Marraztea ikasi beharrekia ote den galdetu diogu: «Nik beti barrenean eraman dut. Niretzako dohain bat da. Dena den, teknikak eta ikasi behar dira». Parisera joatea gustatuko litzaioke, «Louvre museoa ikusteko, baina marrazteko eta bertan gelditzea, ez».

Endikak dioenez, lehiaketak irabazteak zabaltzen du norberaren ize-na, «eta hori garrantzitsua da». Lehiaketa batean garaile iritxeak ez omen du esan nahi, ordea, marrazkilaria ona denik. «Baina behin baino gehiagotan irabazteak, zerbait esan nahiko du...».

Euskal Herriko marrazkilaritza ez du oso ondo ikusi, «egitasmo erraldoietara zuzentzen dira ahalegin guztiak eta bertoko jendea ez zaio laguntzarik ematen». Euskal Herrian marrazteko ohitura egon dela adierazteaz gain, bertoko margolariak atsegin dituela erantsi du, «Lazkano, Andres Nagen, Herrero...».

irrimarra



© Jon Zabaleta

LERRO GUTXITAN

ETA BIHAR

❑ **BI LAGUN HIL eta BESTE HIRU ZAURITU** ziren atzo Madrilén kargagailu bat lurrera erortzean. Ulises kaleko Tolder Fernandez Carrion enpresan gertatu zen ezbeharra, 8.45ak inguruan. J. J. Peña 18 urteko gaztea eta R. Molina de la Cruz 22koa dira hildakoak. Gabriel Vidal Madriléko Komunitateko Industria zuzendariaren esanetan, «langileen zuzenbidearen larriagatik» jazo zen ezbeharra, «kargagailua merkantzien garraiako bakarrik erabili zitekeelako, enpresak debekatuta zela langileei kargagailuan ibiltzea». Kargagailuak gehienez 1.500 kilo jaso zitzaizkeen eta istripua gertatu zenean 1.750 kilo zeramatzan.

❑ **BOST PIPA PAKETE LAPURTZEAGATIK** lanetik bota dute 50 urteko gizonezko bat Granadako supermerkatu batean —250 pezetako balioa dute—. Salvador B. C.k 15 urte zeramatzan bertan lanean, garraiolaria. Bost pipa paketeak zorro batean sartzen harrapatu zuten. Kaleratu eta trukean kalteordaina eman nahi izan zion enpresak, berak onartu ez zuena. Epaitegira jo eta honek arrazoia enpresari eman dio.

❑ **ERANDIOKO BI GAZTE** atxilotu zituen atzo Ertzaintzak Loiu (Bizkaia), bertako baserri batetik bi bizikleta ostu eta ordu erdi lehenago Laukizko jatetxe batean fruitu lehorren makina bati su eman ziotelako. Atxilotu zituztenean mozkortuta zeuden Javier R. S. eta Enrique O. S. 27 eta 24 urtekoak.

❑ **ERIZAINEK** lanean HIESa hartzeko duten arriskua bestela hartzeko daukatena baino txikiagoa dela azpimarratu zuen atzo Sandra Andersen Osasunerako Mundu Erakundeko adituak atzo Madrilén. Erizaintzaren XX. Mundu Kongresuan jakinarazi zuenez, 90 herriak 10.000 profesional bildu dira bertan.

'Uda giroa'

Udan sartu berri garela eta, EGUNKARIA freskotu eta arinagotu egin nahi izan dugu. Hala, bihar emango diogu hasiera 'Uda giroari', festa edo jaien gainera sail berriari. Aldian aldiko eta tokian tokiko, Euskal Herriko herrietan ospatzen diren festen berri izango duzue egunero gurean, egitarau eta guzti. Arbizu, Leioa, Muskiz eta Aguraingo San Juanen txanda da biharkoa.

ONCE

ASTELEHENA

88.483

ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTEGUNA

OSTIRALA KUPOTZARRA